

da, baina baita hori baino gehiago ere; dimentsio moral bat ere badu. Odolean daramagun madarikazio bat da atsekabea».

*The Sweet Hereafter* (Etorkizun gozoa, 1991) bestelako samindura batek biltzen du, tragedia lehen lerrotik azaleratzen baita: «Zakur bat. Ziur zakur bat izan zela ikusi nuena. Edo ikusi uste izan nuena. Une hartan nahiko elur ari zuen, eta, elurretan, ez dauden edo ez diren gauzak ikusten dira. Baina dauden gauza batzuk ere bereizten ez direnez, Jainko maitea, zerbait ikusten denean nola edo hala erreakzionatu behar da eta ama-senaz fidatu, ulertzen nauzue. Hori da nire gidari-esperientzia». Dolores Driscoll da hitz egiten duena, egunero New York estatuko herri txiki bateko haurrak eskolara eramaten dituen. Egun horretan, baina, tragedia gurutzatuko da haren bizitzan. Istripu bat izan, eta hamalau haur hilko dira.

Tragedia horrek komunitate txiki batean izango duen eragina kontatzen du eleberriak; eta, horretarako, lau ahots erabiltzen ditu Banksek. Bata Driscollena berearena da, eta besteak, berriz, ez-beharrean bi seme-alabak galdutuen gizon alargunarena, istripuetan espezializatutako abokatu newyorktarrarena, eta autobusean zihohan eta elbarri geldituen 14 urteko neskatuarena. Lau ahots horien bitartez azaleratzen ditu idazleak komunitate txiki horren saminak, ezin-ulertuak, beldurrak... baina baita *etorkizun gozo* bat bilatzeko nahia ere.

Hala *Affliction* nola *The Sweet Hereafter* zinemara egokitu zituzten Paul Schraderrek eta Atom Egoyanek, hurrenez hurren.

### Ametsa, amesgaizto

Banksen nobelarik mardulena *Cloudsplitter* (1999) da, John Brown esklabotzaren abolizioaren aurkako aktibistaren bizitza haren semearen ahotsetik ekarzen duena. Bertan, AEBen iragenera egin zuen salto idazleak, bere herrialdearen historia, mito, konpromiso moralaz, egiez eta gezurrez hitz egiteko.

AEBek, beren argi eta ilunekin, zeharkatzen baita Banksen obra. *Rule of The Bone*-rekin ere (1995), «amets amerikarren mitoari» mozorroa kendu nahi izan zion: «Zaila da, amets hori zentrala da Ipar Amerikako iruditerian. Amets amerikarrak baliotu du pobreak eta jazarriak kontrolatzeko. Alde horretatik, ametsa baino gehiago, amesgaiztoa da».

## Lurbinttoko larrean xiruri-xirure

### Irati Majuelo

Larre eremu bat Itsasu, Kanbo, Larresoro eta Ezpeleta herrien artean, baserri eta bordak, kanta herriko baten errepika... izan zitekeen euskal kostunbrismoaren paisaia idealizatu. Ez du, ordea, halakorik kontatzen batere Lurbinttoko ohoinen istorioak, bortxaz eta odolez zipiritindutako gertakariak baitira inguru horietan jazotakoak. Adur Larrea marrazkilaria jaso ditu bere azken komikian, EKE eta Elkar fundazioaren sormen bekari esker egikaritu duen proiektuan.

Oinarri historiko sendoko istorioa da Adurrek plazaratutakoa, ondo dokumentatua. XVIII. mende amaierako lapur-banda baten agerpena azaltzen du, Lapurdiko herrietan zenbait auzokide arpilatzen eta izutzen ibili zena. Ohoinen gorabeheretara iritsi aurretik, hala ere, lapurrak jardun horretara eraman zituen

testuinguru zehatza agertzen du: Frantziako Iraultzaren ostean Espainiarekin hasitako Konbentzio Gerla, eta, haren ondorioz, ejerzito batean eta bestean aritu behar izan ziren euskaldunen patua. Frantsesen bandoan borrokatze-ari uko egin zioten hainbat lapur-



### ‘Lurbinttoko ohoinak’

**Egilea:** Adur.  
**Argitaletxea:** Elkar.

tarrek, eta horrek ondorio latzak eragin zituen herri ugartan: herriarrak etxegabetzea, Frantzia barnekaldara deportatzea eta ondasunak desjabetzea. Urte batzuen buruan euren herrietara itzultzean, asko etxerik eta lurrik gabe geratu ziren; amorrerik horretatik jaiotzen da Lurbinttoko ohoinen banda.

Egileak artxiboko lan handia egin du, baina informazioa biltzeaz gain, hari komiki forma ematen asmatu duelakoan nago, oro har. Izan ere, datu historikoak eta trama ongi uztartzen dira, eta, historiaren pasarte ilustratu bat izatetik urrun, fikziorako tartea ere zabaltzen da. Hala, istorioak bere kasa funtzionatzen du, eta dokumentazio historikoa komikiaren zerbitzura geratzen da. Horren adibide da Lurbinttoko ohoinen kanta herrikoia era bilera. Bertso horiek lapur-bandaren patuaren lekukotza dira, eta, halaber, komikiaren hezur-dura egituratzeko baliatzen ditu egileak.

Horrenbestez, historiako gertakari handien eta herritarren historia xehearen arteko zubia egiten du Adurren lanak, ahanzturan geratzear zuden gertakariak, izenak eta lekuak komikira ekarri. Izan ere, gaizkile talde

baten abenturak izan zitezkeen komikiaren motor, baina, horren orde, marrazkilaria testuinguru eta arrazoi politikoak ezartzen dizkie ohoinei; historia pertsonala azalduta, humanizatu egiten ditu. Hori dela eta, komikiaren lehen herenak Konbentzio Gerla eragindakoak azaltzen ditu, oso laburbilduta. Sintetizatzeko beharrak arazoren bat edo beste sor dezake istorioaren hasieran, haria jarraitzea zail gertatzen baita zenbaitetan, gertaera batetik besterako jautzien eta pertsonaien antzekotasunaren ondorioz. Hala ere, ezinbestekoa da lehendabiziko atala, komikiari oinarri historiko sendoa eta istorioari abiapuntu egokia eskaintzen baitizkie.

Ondoren, behin testuinguru historikoa ezarrita, istorioak martxa hartzen du eta irakurle harrapatzen. Western bat baliatzen, herritarren menduko-goseak mugiarazten du trama, arin eta jostari. Mugimendu askoko irudiak erabili ditu Adurrek, zuri-beltzaren iluntasun eta dramatismoari kontrastea egiten diotenak. Finean, istorio zirrargarria, paisaia idilikoak alde batera utzi eta gure lurretako historiaren pasarte zorigaiztoko bat gogorarazten duena.

## Bracketak

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA


### Imanol Mercero

Autofikzioa boladan dago. Literaturaren luze zabalak korrituak ditu eta, jakina, komikietan ekarpen asko utzi ditu jadantik. Tradizio nahiko luzea du AEBetan zein Japonian, eta Europan, gazte literaturari begira jarrita, badira bi hamarkada arrastoa utzi diguten Raymond Briggosen *Ethel & Ernest* edota Olivier Karen eta Alfreden *Pourquoi j'ai tué Pierre* argitaratu zirenetik.

Bai, nerabe eta haurrengana iristen ari da autofikzio bolada hau, eta *Irri egin* da, akaso, leku garbiena. Eta, esan beharra dago, goraiatuena ere bai, jaso dituen sari eta izendapen andanaren artean, komikigintzaren Nobel den Eisner Saria irabazi

baitzuen 2011n, nerabeentzako argitalpen onena izateagatik.

Protagonistaren nerabezaroren hastapenetan kokatzen da kontakizuna, trantsizio aroek berezkoa duten zalantza giroan. Seigarren mailan ikasten du, amek kudeatzen duten haur



### ‘Irri egin’

**Idazlea:** Raina Telgemeier.  
**Ilustratzailea:** Raina Telgemeier.  
**Itzultzailea:** Miel Anjel Elustondo.  
**Argitaletxea:** Astiberri.

munduan bizi da, eta eskaut neska taldean sozializatzen da.

Gidoiaren ardatz nagusia Telgemeierrek hortzekin izan zituen arazo larriek marrazten dute. Ez da harritzekoa, beraz, haginlari-ri bisita egiten hastea kontakizuna, noiz eta bracketak jarri beharko dituela esaten dioten egunetan. Bai, *ortodontista* hitza sarri irakurriko dugu. Kontsultara egindako bisitak errutinaz ikusiko ditugu, eta, aldi berean, kontakizunaren mugarririk direla ohartuko gara.

Eta hauze izan zitekeen birgoroparen-ariketa ilustratu honek eskaintzen duen guztia, baldin eta Raina Telgemeier komikigile arrunta balitz, baldin eta oroitzapen horietan murgiltzea erabaki zunean zorigaiztoa, mina eta ahaztu nahia besterik ez balu ikusi.

Baina ez, Telgemeierrek askoz gehiago eskaintzen digu. Haste-ko, adin horietan ingurunearekin harremanetan nola jartzen zen erakusten digu (istorioak hiruzpalau urte irauten ditu, seigarren mailatik hasita, zazpigarren eta zortzigarren mailak igarotzen dira, eta azken ataletan institutu-ko lehen mailan dago): familia gi-

roa zein zuen, egunerokotasuna nola bizi zuen (estatubatuarrak hain markatua omen duten sexuaren arabera bereizketak sozialaren ondorio patetikoak barne) eta adinkideekin izandako pozak eta minak nola kudeatzen zituen. Anekdotek erakusten duten panorama ez da, ez, bihotz altxagarria, baina kontakizunak baikortasuna islatzen du halere. Birgoratze ariketa errukiorra da, estetiki zein narratiboki.

Bikaintasuna honek guztiak ematen dio, nire ustez, lan honek giza kondizioa agerian jartzeko anekdota sotil batzuk besterik ez dituelako behar, filigranak marraztu gabe, irakurlearen bizkortasuna paralelismoak eraikitze-ko libre utzita.

Azkenik, ezin ahaztuko dugu komikiak estatubatuarren gizarte atomizatuan kokatzen gaituela, San Frantziskon –lurrikarak eta guzti-, pantailetatik hain ezaugarri gabe, irakurlearen bizkortasuna paralelismoak eraikitze-ko libre utzita.

Nobela grafiko ertaina da: zazpi ataletan banatuta dago, 224 orrialde ditu, eta 14x20 cm.